



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



Asteartea
2010-04-20

VIII. URTEA 1.979. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Euskal presoei elkartasuna adierazteko jai eguna antolatu dute

GIZARTEA Presoen eskubideak aldarrikatzeko Aiztondora Eguna antolatu dute bailarako bizilagunek hilaren 24rako

ERREBOTE PLAZA Ekitaldiak Villabona erdigunean izango dira eta 'Burdinen arteko herria' lana ere aurkeztuko dute



60 bat dantzari bildu ziren herenegun Asteasuko lehen Dantzari Txiki Egunean. SARA GOMEZ

ERREPIKATZEKO MODUKO DANTZARI TXIKI EGUNA

ASTEASU Herriko haurrekin batera Alegiako, Tolosako eta Amasa-Villabonako dantzari gazteek alaitu zituzten bazterrak



Krosa bi txandatan banatu zuten, gazteak lehenik eta helduak ondoren. S. GOMEZ

GPS ikastaroa izango da gaur eta bihar Kirol Astearen baitan

IRURA Jende ugari bildu zen herenegun goizean eginiko herriko lehen kros herrikoian

argazki lehiaketa **h**

bidali opor hauetako argazkiak!

NORA BIDALI?

1. Saria

2. Saria

3. Saria

landetxe bi

entzako era

rtik,

tosaldean@tolosaldekohitza.info helbide elektronikora edo **HITZA**ren Tolosako edo Leitzako egoitzetara **Apirilaren 6tik 28ra**

HITZA aste santuko argazki lehiaketa

Txikienen dantzek hartu dituzte herriko bazterrak

Asteasu » 60 bat dantzari bildu ziren herenegun eginiko lehen Dantzari Txiki Egunean.

ERREDAKZIOA

Lehen aldian zen herrian Dantzari Txiki Eguna antolatzen zutela, baina giro ezin hobea jarri zuten, eta festa egun «xumea» izango zela iragarri bazuten ere 60 dan-

tzari txikien dantzek hartu zuten herria, azkenean.

Asteasuko Udalak antolatu zuen eguna eta herriko dantzariekin batera Tolosa, Alegia eta Amasa-Villabonako gazteak ere bildu ziren.

Lehenik eta behin, hamaiketa-koa egin zuten, eta behin indarberrituta, kalejira egin zuten herri guztia hartuz; batzuk alde zaharrean barna ibili ziren, eta herriko bazter berrietara joan ziren besteak. Kalejiran ibili eta gero frontoira



Eguedrian frontoian eskaini zuten emanaldia. SARA GOMEZ

joan ziren 13:00ak aldera eta bertan eskaini zuten emanaldia.

Dantzari gazteen artean urduritasuna zen nagusi, baina hala eta guztiz ere emanaldi polita eskaini zuten, ikasturtean zehar ikasitako guraso, senitarako zein lagunei erakutsiz.

Elkarlana

Asteasuko lehen Dantzari Txiki Egunerako inguruko herrien dantzariekin elkarlana bultzatu dute eta ordainetan edo, Tolosa, Alegia eta Amasa-Villabonako gazteak Asteasuko dantzarien etxeetan bazkaldu zuten. Arratsaldean ere jai giroak jarraitu zuen, hala ere, erromeria izan baitzen Modesto soinu-jolearekin.

Herrian geroz eta ume gehiago animatzen ari da azkenaldian dantzan ikastera. Egun 6 eta 12 bitarteko 45 bat ikasle dituzte dantza taldean eta ziur herenegungo ekitaldiak ere beste asko animatuko dituela.

Literatur astea antolatu dute Samaniegon

Tolos » Nazioarteko Liburu Eguna bitarte guraso, irakasle zein gonbidatu desberdinek irakurketa publikoak egingo dituzte.

ERREDAKZIOA

Egun berezia izango da ostiralekoa, Nazioarteko Liburu Eguna izango baita. Herri zein toki desberdinetan izango dira ekitaldiak, baina badaaste osoa literaturari eskainiko dionik ere, Tolosako Samaniego herri ikastetxeak, hain zuzen. Atzotik ostirala bitarte literatur astea izango dute eskolan azken hamar urteetan bezala. Horiek horrela, ostirala bitarte eskolako haurrek irakurketa publikoak izango dituzte gurasoen, hezitzaileen, irakasleen, ikasle etorkinen,



Ikasturtean zehar ere bisita ugari izatendituzte Samaniegon. HITZA

ONCEko eta Gorren elkarteko kinden eskutik, besteak beste.

Eskolako Lourdes Sarasua LHI-ko ikasketa buruak argitutuakoa arabera, literatur astea ikasturtean irakurzaletasuna bultzatzeko egiten dituzten «ekimenen bilgunea» da. Horien artean kokatu ditu tarteak izaten dituzten idazleen bisitak, literatur astearen baitan Joxean Ormazabal izango delarik Samaniegon; ostegunean, hilak 22, izango da LMH 2A-2B-2C ikasleei *Amarén titti zorroa* irakurriko dielarik 09:00etatik aurrera.

Era berean, literatur astean *Kika eta Kamile* kanpaina amaituko dute. Ikasturtean zehar ikasleek liburu bat irakurri izan dutenean pegatina bat erantsi dute liburutegian horretarako prestatutako marrazkian, baita fitxa bat bere ere. Irakurritako liburu kopuruaren

arabera, aste honetan zehar dominak banatuko dituzte. Bestetik, Felix Maria Samaniego zenaren argazkia eta sinadura daramatzan liburuen markatzaileak ere banatuko dizkiete 3. mailako ikasleei.

Erabiliko dituzten hizkuntzari dagokienez «euskararen normalizazioaren aldeko apustua eginez, ekitaldi gehienak euskara hutsean» egingo dituztela esan du ikasle buruak. Baina euskaraz gain ingeleza, aragoiera, gaztelania, frantsesa, portugesa eta italiara entzuteko parada izango da. Braillea eta zeinuen hizkuntza gertuagotik ezagutzeko aukera ere izango dute.

Bukatzeko, Lourdes Sarasuak literatur asteak urtero izan duen arrakasta «jende xumearen parrotidetza» datzala nabarmendu nahi izan du.

Hilberriak

TERE AMIANO AROCENA
ANDREA
(ANTTON LACUNZAREN ALARGUNA)

Atzo hil zen, 84 urte zituela Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
-Goian bego-

Bere seme-alabak: Inaxio eta Paz Garcia, Pablo eta Arantxa Arsuaga; biloba: Ainara; anai-arrebak: Andres eta Ana Mari Etxezarreta, Jose Mari (?); ezkon anai-arrebak: Jose Mari Lacunza eta Conchita Lopetegui, Miguel Lacunza eta Ramon Zumeta, Luis Lacunza eta Milagros Arregui, Jesus Lacunza (?), eta Bittori Mendizabal, Julian Lacunza eta Angelita Ruiz; Luis Oyarzabal (?), eta Izaskun Lacunza; Juanito Nosellae eta M^o Dolores Lacunza, Rosarito Lacunza; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaidiak.

Haren animaren alde otoliz bat eskaltzen dizute eta arren etorritzelela GAUR ASTEARTEA, arratsaldeko ZAZPIETAN, SANTA MARIA elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

HELBIDEA: Errementari, 7-2
OHARRA: Gorputz belia Tolosako TANATORIO-ORRIA (Usabal poligonoa, 12 B) gaur asteartea goizeko 09:45ak arte egingo da.

TOLOSA
2010eko
apirilaren 20a

MARIA KARRERA GOIKOETXEA
ANDREA
(BAUTISTA BELDARRAINEN ALARGUNA)

-Goian bego-

Lore bat bezala joan zera udaberria heltzean gure bihotzean izango zera bizi geran artean.

Zure bilobak: Jon eta Ana, Airnhoa eta Peio, Asier eta Josune, Aloña eta Xabier, Igor eta Mirren, Onintza eta Oier; bilobak: Unai, Markel, Oñatz, Aitor, Ekiñe eta Jurgi.

Haren animaren alde otoliz bat eskaltzen dizute eta arren etorritzelela GAUR ASTEARTEA, arratsaldeko ZAZPIETAN, Amezketako SAN BARTOLOME parroki elizan, gorputza bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

AMEZKETA
2010eko apirilaren
20an

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA

www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40

ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

Autoa partekatzeko zerbitzua herritar guztion eskura dago

Gizartea » Autoa partekatu ahal izateko internet bidez jarri duten doako zerbitzua martxan dago. 27 erabiltzaile ditu jada 'Autoan elkarrekin' programak.

ERREDAKZIOA

Ez da gauza berria lanera edo unibertsitatera joateko autoa partekatzeari. Auto pribatuak gaur egungo bizitzan duen garrantzia ikusita, bestezenbait herrialde edo eskualdetan egin den moduan, gurean ere, Tolosaldea Garatzenek martxan jarri du *Autoan elkarrekin* proiektua.

Tolosaldean, ekimen honi esker, ibilgailu pribatuak partekatzeko interesa duten pertsonen, elkar ezagutzeko bidea eman zaie. Proiektu hau martxan jartzeko Udalek eman dute informazioa eta Tolosaldea Garatzenek bere web orrian jarri du zerbitzua, www.tolosaldeagaratzen.net helbidean, hain zuzen ere. Eskualdeko zenbait udalen web orrietan ere aukera hori eskaintzen da.

Tolosaldea Garatzenen eta Tolosaldeko Udalen webguneen bitartez, autoa partekatu nahi duten pertsonak elkartzeko plataforma eratu da eta lehenengo datu batzuk eman ditu Tolosaldea Garatzenek. «Irailetik hona batz bestea 473 bisita jaso ditu eta hilean 5 erabiltzaile berri jasotzen ditu webguneak. Hori esker dagoeneko 27 erabiltzaile egonkor ditu» azpimarratu dute. Lehen bakarka joan-etorri berdina egiten zuten 4 bikote edo taldek, dagoeneko zerbitzu honen bitartez autoa partekatzen dute.

Autoan elkarrekin ekimenak, mugikortasun jasangarria bultzatzea du helburu. Herritarrek autoa era egokiagoan erabiltzera bultzatu nahi ditu. Dagoeneko, honako zerbitzu hau, bederatzi autonomi erkidegok eskaintzen diete euren herritarrei.

Kutsadura eta kontsumo energetikoa

Esan bezala, autoa partekatzeari ez da gaurko kontua. Honako hau ez da orain martxan jarri den ekimen berritzailea, baizik eta betidanik izan dugun ohitura hori bultzatzea du helburu.

Baina orain, ikuspuntu ekologiko eta ekonomiko batetik berrikusia eta birbaloratua izan da. Ez da inondik inora ibilgailua partekatzeko zerbitzu hau behar, zentzuz jokatzea nahikoa da kutsadura eta



Industria guneetan esaterako, auto asko pilatzen da eguneroko. E. MAIZ

kontsumo energetikoa murrizteko. Dena den, Tolosaldeko Udalek eta Tolosaldea Garatzenek ibilgailu pribatuaren erabilera murrizteagatik, plataforma hau martxan jarri dute. Herritarrei ahalegin gehigarri bat egitea eskatu nahi zaie eta horretarako, baliabide berri hau eskaini dute.

Azken finean, guzti honekin, motordun ibilgailuek sortzen duten kutsadura eta kontsumo energetikoa gutxitu nahi dira. Era berean, garapen ekonomiko jasanga-

rriago baten alde lan egiteko urrats bat baino ez da esku artean dutena. Autoa partekatzen hasteko, lagun edota lankideen artean hitz egitea bezain erraza izan daiteke. Gainerakoan, *Autoan elkarrekin* zerbitzua jo eta bertan, bidaideak aurkitzea izango litzateke.

Nola funtzionatzen du

Behin internet bidez *Autoan elkarrekin* atalean sartuz gero, hiru atalatan banatuta dago: lanera, unibertsitatera edota beste helmuge-

tara joateko atalak daude. Bertan irteera eta heltzeko herria sartu behar dira; eta ibilbide hori egiten duten eta erregistratuta dauden lagunen eskaintzak agertzen dira. Erregistratuen artean, eskualdez kanpoko jendea ere badago. Hor bertan, eskualdeko herri guztiak zerrendatuta daude eta herri bakoitzean, elkartzeko tokiak zeintzuk diren zehaztuta agertzen dira.

Bidaideak topatzeko, norberak bere burua erregistratu egin behar

» AUTOAN ELKARREKIN

Doako zerbitzu da

■ **On-line.** www.tolosaldeagaratzen.net helbideetik edota eskualdeko zenbait udalen webgunetik sar daiteke.

■ 27 erabiltzaile eta 473 bisita.

Irailetik hona programa hori esker, 27 erabiltzailek partekatzen dute autoa.

■ **Herri guztietan aukera.** Eskualdeko herri guztietan autoa partekatu ahal izateko elkartzeko guneak izendatuta daude. Webgunean ikus daitezke.

du. Behin erregistratuta, besteek ibilbidearen berri izango dute eta zurearen antzeko bidaia egiteko izena eman duten pertsonak nortzuk diren jakiteko aukera eskaintzen da.

Zurearekin bat datorren lagunak topatzu gero, posta elektronikoa bidez berarekin harremanetan jarri zaitezke. Lehentasunak zein diren, autorik baduten ala ez, bidaiaren arrazoiak zein den eta beste hainbat datu ikusteko aukera izango da. Honela, bidaideak erazago topatzeko aukera dago.

Posta elektronikoa bat uzteko aukera ematen du zure ustez bidaia bera partekatzeko egokiak diren pertsonen. Guztia berehala eta bitartekariarik gabe egin daiteke. Argi utzi nahi da, sartzen diren datuak ezin dituela inork eskuratuko eta maila ez dela beste inolako helburrekin erabiliko.

Informazio osoa eta azalpen guztiak bertan agertzen dira. Orain, pausu hau emateko norberaren ahalegina faltako litzateke.

«Ekonomikoki dirua aurrezteaz gainera, ingurumenari begiratzeko beste modu bat da»

AINHOA EGIGUREN ETA JON MIKEL GALPARSORO » Irakasleak

Irura » Iruran bizi dira biak eta Lazkaon egiten dute lan; andoaindar batekin batera, 2008ko irailetik autoa partekatzen dute.

E. MAIZ

Ainhua Egiguren (1981, Tolosa) eta Jon Mikel Galparsoro (1974, Lazkaon) biak alabiak, gaur egun Iruran bizi dira. Irakasleak dira eta lantokia Lazkaon dute, eguneroko auto partekatzen dute.

Noiztik partekatzen duzue autoa?

Jon Mikel Galparsoro. Iazko ikasturtean partekatzen dugu, 2008-2009 ikasturtean.

Nolatan erabaki zenuten zerbitzua erabiltzea?

Ainhua Egiguren. Herri berdinean bizi gara eta herri berdineraren goaz lanera, eta gainera lankide izanda, besterik gabe erabaki genuen.



E. MAIZ

J.M.G. Ia eguneroko ordutegi berdintsua daukagu. Batek lehenago ateratzen edo sartu behar badu edota lanen bat ez duelako bukatu itxaron egin behar izaten badugu ere, normalean elkarren artean moldatzen gara.

Zeintzuk dira autoa partekatzeari

renonurak?

A. E. Lehenengo ekonomiko izango litzateke, gasolina.

J.M.G. Eta gure kasuan, irakasleak gara eta ikasleei ere, Agenda 21a dela eta ez dela, ingurumena zaindatzeko gaitza horiek erakusten dizkiegu. Esaten duguna bete

eta eredu izan behar dugu gure ere. **Hirugarren lagun batek ere autoa zuekin partekatzen du.**

Andoaindarra da eta ez dauka autorik. Trenez etortzen da Irurara eta gurekin joaten da Lazkaora.

Nola antolatzen zarete?

A.E. Aste batean batek hartzen du autoa eta hurrengoan besteak, txandaka egiten dugu.

Lantokira bakoitza bere autoa hartuta joaten diren horiei, zer esango zenieke?

J.M.G. Aukera on bat dela. Ekonomiko aurrezteaz gainera, ingurumenari begiratzeko beste modu bat da. Konpartitzaia probatu dezala behintzat eta gero ikusiko du jarraitu edo ez, baina lehenik eta behin probatu dezala.

A.E. Bai. Uste dut erosotasunari ez diogula begiratu behar. Bakoitzak bereari begiraten dio askotan. Guk alde horretatik zortea dugu, herri berdinean bizi gara eta herri berdinetik abiatzen gara. Ez dugu beste herri batean sartu behar.



Aiztondo bailarako lagun asko elkartu ziren, Aiztondora Egunaren berri eman eta besteak beste euskal presoen eskubideak aldarrikatzeko. INIGO TERRADILLOS

» AIZTONDORA EGUNA

Hilak 24, Villabonako Errebote plazan

- **11:00etan.** Diana.
- **11:30ean.** *Burdinen arteko herria* liburuaren aurkezpena.
- **12:30ean.** Herri kirol apustua: aizkora, sega, trontza eta korrika.
- **14:30ean.** Herri bazkaria.
- **17:30ean.** Haurrentzako jolasak.
- **19:00etan.** Kantu Jira.
- **Txartelak.** Iratzar, Xiker, Irualdeta, Xaldu, Egarri, Zentroa eta Iturri Ondo tabernetan, erosteko azken eguna, hilak 22 osteguna.
- **Prezioa.** Helduen menuak, 20 euro eta haurrenak, 10 euro.
- **Eguraldia.** Eguraldi txarra egiten badu, frontoian izango da.

Egun osoko festa

Egunari hasiera 11:00etan emango diote dianarekin. 11:30ean, *Burdinen arteko herria*, liburuaren aurkezpena egingo dute. 12:30ean Herri Kirolak hasiko dira: aizkora, Joseba Otaegi eta Juan Manuel Erasunen arteko apustua, korrika lasterketa, sega erakustaldia eta trontza izango dira. Hauen ostean, 14:30ean, Herri bazkaria izango da eta bertara joateko txartelak erosi egin beharko dira. 17:30ean haurrentzat jolasak izango dira eta 19:00etan Kantu jira egingo dute.

Bazkarirako txartelak Iratzar, Xiker, Irualdeta, Xaldu, Egarri, Zentroa eta Iturri Ondo tabernetan daude. Helduenak 20 euro eta haurrenak 10 euro balio dute eta erosteko azken eguna hilak 22 izango da. Eguraldi onarekin Errebote plazan egingo da guztia eta txarra egingez gero, frontoian.

Aiztondora Egunean, euskal presoei elkartasuna adieraziko diete

Gizartea » Presoei eta batez ere, bailarako hamabiei elkartasuna adieraziz, eskubideak aldarrikatuko dituzte.

ERREDAKZIOA

Larunbatean, hilak 24, Aiztondo bailarako bizilagunek antolatuta, Aiztondora Eguna ospatuko da. «Euskal Presoekiko Elkartasunak batzen gaitu» lelopean, egun oso-

ko jaia prestatu dute. 11:00etan hasi eta iluntzera bitarte izango da.

Horren berri emateko, larunbatean Villabonako Bearzana pilotalekuan, hainbat eta hainbat lagun elkartu ziren. Horien artean ziren: Zizurkil eta Villabonako preso politikoen senide eta lagunak, Arantza Aburuza Adunako alkatea eta Maixabel Arrieta Villabonako alkatea, Mikel Arrastoa Zizurkilgo EAE-ANVren zerrendaburua, Juan Manuel Erasun segalaria eta Zizurkilgo alkate ohia, ELA eta

LAB sindikatuetako zenbait kide, Joseba Otaegi aizkolaria eta Iñigo Sarasola Realeko jokalaria.

Aiztondo bailarako bizilagunek, euskal preso eta hauen senide eta lagunak pairatzen duten jazarpena salatu nahi izan zuten. Jarraian, lehenik eta behin, espainiar eta frantziar estatuei dei egin zieten: «Indarrean duten sakabanaketa politikarekin bukatzeko, eskubideak unean uneko interes politikoen gainetik errespetatzeko eta salbuespeneko legedia antiterrorista

bertan behera uzteko eskatzen diegu» azpimarratu zuten.

Ondoren, banan bana azalduz, Euskal Presoen eskubideak aldarrikatu zituzten: «Osasun, komunikazio, hizkuntza, hezkuntza, amatasun eta aitatasun eta defentsarako dituzten eskubideak. Baita tratu duin eta begirunezkoa jasotzeko edota askatasunerakoa ere. Azkenik, Euskal Preso Politikoen Kolektibo gisa, Euskal Herrian eta elkarrekin bizitzeko duten eskubidea» azpimarratu zuten.

Kirol astearen baitan, I.Kros herrikoia ospatu da

Irura » Igandera bitarte, kirolari lotutako ekintzak izango dituzte irurarrak: ikastaroak, ibilaldi neurtua eta xake eta pilota partidak.

ERREDAKZIOA

Irura I. Kirol Astean murgilduta dago. Asteburuko ekintzen artean, igandean I. Kros Herrikoia izan

zen. Bi txanda ezberdinetan banatu ziren; lehenik benjaminak, alebinak eta infantilak eta bigarren txandan, kadeteak eta helduak. Korrikalariak animatzeko ikusleek ere ez zuten hutsik egin.

Ostegunean, 16:30ean jubilatuen ibilaldi neurtua, ostiralean, 22:00etan esku pilota partidak eta igandean, 10:30ean xake partidak izango dira. Bestetik GPS eta patinaria ikastaroak izango dira.

» KIROL ASTEA

Gaur eta bihar

■ **GPS ikastaroa.** Mendian orientatzen ikasteko. 19:00etatik 21:00etara, Gaztelekuan.

Hilak 21, asteazkena

■ **Patinaje ikastaroa.** Frontoian, 17:30etik 19:00etara haurrentzat eta 19:00etatik 20:30era helduentzat.



Kadete eta helduen krosean parte hartu zutenetako batzuk. SARA GOMEZ



Promozio berria -Ibarra-

Sustatzailea:
Epergain
Eraikuntzak eta Promozioak, S.L.
Eraikitzen du:
Aburuza
Eraikuntzak S.A

Kale Berria 46 • Villabona • 943 69 0297 • www.aburuza.com

Ekainaren 8an epaituko dute Garikoitz Ibarluzea ibartarra

ERREDAKZIOA

Ekainaren 8an epaituko dute azkenik Garikoitz Ibarluzea ibartarra. Britainia Handiko epai-mahai batek atzo zehaztu zuen estradi-zioiko auzi saioa. Hau Espainiak eskatu zion, Ibarluzeak kale borroka eraso batzuekin duen ustezko loturagatik.

Atzo, bideokonferentzia bidez eta itzultzaile baten laguntzarekin entzun zuen Ibarluzeak bere abokatuaren, hau da, Ben Cooperren, azalpena eta argudiaketa. Izan ere, Wentminsterreko Magistratuen Gortean izan zen atzo goizeko saioa. Bestalde, epaileak azaldu zuenez, modu hau bera erabiliz, maiatzaren 17an aurkeztu behar du bere aurrean.



Giro bikaina XI. Topaketetan

AISIA ● Goizuetan leitzaldeko Guraso eta Eskolen Arteko XI. Topaketak ospatu ziren asteburuan eta bertan izan ziren eskualdekoak. Aresoko dantzariak eguerdian dantza emanaldia eskaini zuten eta arratsaldean antzerkia egin. Eguraldiak ere lagundu zuen jaia alaitzen, giro bikaina egin baitzuen. Goizean taillerak eta jokoak egin ziren, tailerretan erroskilak egin

eta hauek dastatzeko aukera ere izan zen, aurpegia margotu, eskulanak egin... Ondoren dantza, eta Leitzakoan antzerkia ikusteko aukera izan zen. Jarraian kalejiraren Eskolara joan ziren eta bertan bazkaldu. 16:00etan hiru eskolen antzerkiak eta kantu emanaldiak ikusteko parada izan zen. Ondoren txokolatada egin zuten plazan eta amaitzeko, trikixita. HITZA

Laburrak

Loatzok batzarrak deitu ditu hainbat herritan

KULTURA ● Loatzo musika eskola zenbait aldaketa egitera doa. Hori dela eta herritarrei zuzendutako batzarrak deitu ditu. Bilerak honako herri, toki eta orduetan izango dira: Adunan, gaur 18:00tan, udaletxean; Anoetan, gaur 19:30ean, baita ere, udaletxean; Alegian, bihar 19:30ean, udaletxean; eta azkenik, Villabonan, etzi, 19:30ean, Musika eskolan.

Udalbatzaren ezohiko bilkura izango da bihar

LEITZA ● Udalak deituta, Ezohiko Udalbatzaren Bilkura izango da bihar. Batzarra 21:00etan hasiko da, eta besteak beste, honako gaiak jorratuko dira: 2010eko aurrekontuaren 3. aldaketa, Erleta eskolako obrak, hutsik dauden etxebizitzaren inguruko hitzarmena eta *Egia nahi dugu* mozioa

Larrea auzoko 61 lurpeko aparkalekuren kontzesioa

VILLABONA ● Larrea auzoan 61 lurpeko aparkaleku plaza kontzesioan atera ditu Udalak. Hala, hauek eskuratu nahi dituztenek eskaria egiteko aukera dute maiatzaren 21a bitartean. Kontzesioak 75 urterako izango dira. Deialdian parte hartzeko eskari orria udaletxeko Bulego Orokorretan eskuratu daiteke, eta hau bete ondoren, Udaltxeko Erregistro Orokorrean utzi.

'Zutik Euskal Herria' aurkezten hasi dira

ANOETA ● Ezker abertzaleak burutu duen eztabaida prozesuaren ondorioak bilduz osatutako *Zutik Euskal Herria* dokumentuaren gizarte-ratzeari ekin diote Anoetan. Horren lehen ekimena joan den larunbatean burutu zuten. Hala ere, informazio gehiago nahi duenak www.ezkerabertzalea.info webgunean eskuratu dezake.

Leitzarrek bost sari irabazi dituzte Satur Eleta V. Musika Lehiaketan

Leitza ● Larunbatean jokatu zen Aralar Musika Eskolak antolatutako norgehiagokako finala, Lekunberriko pilotalekuan.

ERREDAKZIOA

Bost sari etxeratu dituzte Leitzako musikari gazteek Satur Eleta V. Musika Lehiaketan. Aralar Musika Eskolak ikasleen talentua eta motibazioa bultzatzeko asmoz urtero antolatzen du norgehiagoka hau. Hala, larunbatean jokatu zen finala Lekunberriko kiroldegian eta leitzako hainbat lagunek hartu

zuten parte bertan. Bakarleri, bikote, hirukote eta laukote ataletan, adinaren arabera lehiatu ziren musikariak. Epailen lanak egiten, Aralarako irakasleak aritu ziren.

Leitzakoentzat bost sari

Bakarlarren artean, 8-9 urte artekoetan Lorea Basterretxea izan zen garaile. 10-12 bitartekoetan berriz, lehen bi sariak leitzarrentzat izan ziren. Leire Erbitik irabazi zuen pianoan, Bach-en *Invenzion N° 1 Bwv 773* abestiarekin. Bigarren Beñat Altzelai geratu zen, saxofoiarekin jotako Robert Barilleren *Fan Jazz* obrarekin.

13-15 urte artekoetan ere garai-

pena eskualdekoentzat izan zen. Mikel Sagastibeltzak J. Page & R. Plant-en *Stairway To Heaven* kantua aukeratu zuen gitarra elektrikoarekin jotzeko.

Bakarlarren azken atalean, hau da, 16 urtetik gorakoetan, Beñat Pellejero izan zen irabazlea. Bigarren ordea, leitzar bat geratu zen, Lorea Zabaleta, hain zuzen ere. Honek, txistuarekin, Isidro Ansoaren *Birigarroa* pieza jo zuen.

Bikotea, 8 eta 11 urte bitartekoan atalean, lehendabiziko saria hutsik geratu zen, baina bigarrena, bi leitzarrentzat izan zen. Patxi Claudio Azpiroz eta Leire Erbitiren-tzat. Zeharkako txirula eta Pianoa-

rekin Oskorriren *Euskal Herria euskaraz* kantu herrikoia taularatu zuten.

Hamabi urtetik gorakoetan, Gorka Otermin atalloarrak eta Nere Sotil beteluarrak irabazi zuten. Hirukoteetan, Ainara Hualde, Ixiar Braco eta Saioa Erro, Eltso, Lizaso eta Eltzaburukoak hurrenez hurren, izan ziren sarituak. Amaitzeko, 12 urtetik gorakoetan, lehendabiziko saria Inatzako Ana Belen Arraras, Azkarateko Irati Jauregi eta Errazkingo Jaione Azpirozentzat izan zen. Hauek trikixiarekin, Skalariak talde nafarrenean *Eguzkitan edan* abestia jo zuten.



Errenta Mekanizaturako Hitzordua: apirilaren 19tik ekainaren 11ra

Modalitate mekanizatuaren bidez aurkeztu nahi baduzu aitortpena, gogoan izan hitzordua eskatua behar duzula apirilaren 19a eta ekainaren 11 bitartean.

AHOLKUAK:

- Ahal baduzu, eska ezazu hitzordua Internet bidez, azkarragoa eta errazagoa da eta.
- Telefonoz egiten baduzu, izan ezazu pazientzia lehen egunetan, gure lineak gainezka izan ditzakegu eta. Jakin ezazu hitzordua eguneko edozein ordutan eska daitekeela.
- Gogoratu errenta euskaraz egin dezakezula konfiantza osoz.

gipuzkoako
ogasuna

902 100 040
ZERGADUNARI LAGUNTZEKO ZERBITZUA
Autolikidazio proposamenak onartzea, errenta mekanizaturako hitzordua eta informazioa.

APIRILAREN 20TIK
EKAINAREN 25ERA



GIPUZKOA
zurekin, aurrera

OGASUN ETA FINANTZA
DEPARTAMENTUA
DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y FINANZAS

www.gipuzkoa.net/ogasuna

Amezketak, Albiztur eta Tolosak kanporaketak bideratuta dituzte



Amezketako eta Zestoako nagusien mailako pilotariak. HITZA



Bidegoiango pilotariak Oiartzungo frontoian kanporaketa hasi aurretik. HITZA

Pilota » Herriarteko Txapelketaren joaneko partidak jokatu dituzte eskualdeko sei herrik asteburuan; Villabona, Alegia eta Bidegoianek zailagoa dute kanporaketa irabaztea.

IMANOL GARCIA

Eskualdeko sei herri ari dira parte hartzen Herriarteko Txapelketan eta asteburuan lehen kanporaketaren joaneko partidak jokatu dituzte. Aurrera egiteko aukera gehien dituztenak Amezketak, Tolosa eta Albiztur dira. Villabona, Bidegoian eta Alegia oraingoz atzetik doaz euren kanporaketetan.

Eskualdeko derbyan Albiztur gailendu zitzaion Villabonari. Kadete eta nagusien mailan lortu zituzten garaipenak eta jubentzetan irabazi zuten billabonatarrek. Amezketak hiru partidak irabazi zituen Zestoaren aurka. Tolosak kadete eta jubentzetan irabazi zion Arrasateri eta nagusietan galdutako. Alegiak kadeteetan irabazi zuen eta jubentzetan eta nagusietan galdutako.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Ile-apaintzailea.** Ibarra ile-apaindegi batek laguntzaileak behar du. Idatzi metxa2@yahoo.es helbidera edo deitu 609-79 27 87 telefono zenbakira.

GALDUTAKOAK

■ **Argazki kamera.** Argazki kamera galdutako zen igande eguerdian Alegian. Zerbaiz ikusi zuen edonork mesedez deitu 943-65 32 87 telefono zenbakira.



Villabona eta Albizturko jubentzetan mailako pilotariak partidaren une batean. ESTI EZEIZA

du bazuen ere, 19 tanto egin ahal izan zituen bi partidetan. Bidegoianek jubentzetan irabazi eta kadete eta nagusietan galdutako zioten partidak.

Villabonaren eta Albizturaren arteko partidak hauek izan ziren emaitzak: kadeteetan 5-22, jubentzetan 22-2, eta nagusietan 9-22. Iñaki Lizaso Villabonako taldearen arduradunak azaldu duenez, «oso zaila» dute kanporaketa gaitzeko. «Kadeteetan tanto gehiago egitea espero genuen, ez baitu

uste horrenbesteko alde dagoenik», azaldu du. Jubentzetan «bibilakoteen arteko maila ezberdintasuna nabarmena da» eta partidak hori islatu zela dio. Villabonak horrela lortu zuen bere puntua.

Nagusien partidari dagokionez, «luzegagoa izan zen», dio Lizasok. «Atzelari bezala ondo ikusi nuen nire burua, akats gutxi eginez. Ahal genuena egin genuen eta itzuliko partidaren ere horrela saiatuko gara», azaldu du.

Gorka Arandia Albizturko tal-

deko arduradunaren arabera, «nahiko ondo, espero bezala», joan zen kanporaketa. Bideratuta dute kanporaketa eta aukerak ikusten dituzte aurrera egiteko. «Jubentzetan ezin izan genuen ezer egin eta besteak, batez ere nagusiak, partidak borrokatuak izan ziren», dio Arandiak. Orain itzulerrako partidak Albizturaren jokatuiko dira igandean, hilaren 25ean. Eguerdi partean hasiko dira, baina oraindik ez dute guztiz zehaztu ordutako.

@ Zurea da hitza. HITZAren webgunean aukera duzu hainbat modutara parte hartzeko. Eztabaidak, inkestak, argitaratutako albistearen inguruko iritzia... Eta bada aukera bat zure inguruko albisteak emateko: 'Zurea da hitza' atala. Bertan idatzi ditzakezu albisteak, iritzia, hausnarketak... Gogoratu, bestalde, aukera duzula parte hartzeko Hitza Argazki Lehiaketan. Aste Santuko oporretan ateratako argazkiak bidali ditzakezu 'tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info' helbidera.

www.tolosaldeko-hitza.info

Amezketak aukera gehien

Hiru partidak irabazi zituen Amezketak Zestoaren aurka: kadeteetan 22-7, jubentzetan 22-14, eta nagusietan 22-17. «Lehenengo bi partidak histori handirik gabekoak izan ziren amezketarren maisutasunarengatik, batez ere kadeteetan», azaldu du Xalton Zabala taldeko arduradunak.

Emoziorik handiena nagusietan egin zen eta amezketarrek gehienan mepean egin baziren ere erakutsi zuten beteranotasunak gradu bat ematen duela. «Ez dituzte alperrik Haritz eta Artolaren artean 78 urte», azaldu du Zabalak. «Esan behar da eta guztiz baloratzen da da pilotari horiei esker atera dugula Amezketako taldea, eta beraiek parte hartu badute, atzetik datozen pilotarietara begira izan dela». Hilaren 24ean, larunbatean, jokatuko dituzte itzulerrako partidak Zestean, 18:00etan.

Tolosak ere modu onean ekin zion Txapelketari Arrasaten. Kadeteetan 15-22, jubentzetan 15-22, eta nagusietan 22-13 egin zuen. «Oso gustura gaude emaitzekin», azaldu du Mikel Beloso taldeko arduradunak. Kanporaketa alde dute eta taldea «oso gustura dago horregatik. Pilotariak kontentur daude». Lehenengo bi partidak «oso borrokatuak» izan zirela dio Belosok eta hirugarrengoa 13 tanto egitea lortu zuten.

Itzulerrako larunbatean, hilaren 24ean, jokatu da Beotibarren 10:30ean. «Esperantza badugu kanporaketa gaitzeko», azaldu du Belosok.

Alegiak ezin izan zuten etxean kanporaketa bideratu Usurbilen aurka. Kadeteetan 22-6, jubentzetan 19-22, eta nagusietan 19-22 lortu zuten. Jose Luis Zabala taldeko arduradunak frontoian bizitako giroa nabarmendu du: «Jende asko izan zen eta asko animatu zituzten pilotariak».

Kadeteetan erraz irabazi zuten baina beste biak okertu egin ziren partidaren bukaeran. «Pena da, irabazteko moduko partidak izan ziren», azaltzen du Zabalak. «Jubentzetan 19-22 irabazten joan ziren gureak eta azkenean garaipena besteentzat izan zen». Nagusietan Renobalesek «tanto ederrak» egin zituen eta 19-13 irabazten joan ziren. «Baina Usurbilgoak animatu egin ziren eta pixkana tantoak egiten joan eta azkenean irabazi egin zuten», dio Zabalak.

Usurbilen izango dira itzulerrako partidak eta jendearen animoak «garrantzitsuak» izango direla dio Zabalak. Joaneko partidak ikusita kanporaketa aurrera ateratzeko aukerak ikusten dituzte alegiarrek. Ostiralean, hilak 23, jokatuko dira partidak, 22:00etan hasita.

Bidegoianek garaipen bat lortu zuen Oiartzunen, baina beste bi partidetan tanto dezente eskuratu zituen. Kadeteetan 22-15, jubentzetan 17-22, eta nagusietan 22-15 egin zuten. Itzulerrako partidak etxean jokatuko dituzte asteburu honetan.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

K Emaitzak

PILOTA

Lehen Mailako Banakako Txapelketa Nagusia

LIGAXKA

Bengoetxea VI.a 20
Asier Olaizola 22

Barriola 12
Martinez de Irujo 22

Federazio Torneoa

SENIORRAK

Jon Jaunarena (Nafarroa) 12
Mendoza (Errioxa) 18

Irurtzungo Txapelketa

KADETEAK

Olano-Tolosa (Aurrera) 18
- 7

KADETEAK

Aldaregia-Hernandorena (Aur) 18
- 9

Añorgako Txapelketa

INFANTILAK

Gartziarena-Zubiria (Aurrera) 18
- 9

Nafar Jokoak

BENJAMINAK

Joseba Eskudero-Naia Eskudero 18
Zugarralde 9

Mattin Sukuntza-M. Zabaleta 18
Erreka C 8

ALEBINAK

A. Alduntzin-B. Aitzelai 7
Larraun B 18

Joanes Illarregi-B. Billabona 9
Larraun C 18

INFANTILAK

Ander Eskudero-A. Gartziarena 18
Beti Onak B 11

Xabier Zubiria-Lenitz Galartza 18
Ardoi B 10

KADETEAK

Mikel Onsalo-Ibai Gil 22
Aranpilota A 0

Xabi Eraso-Ibai Barberena 18
Mendilorri A 12

FUTBOLA

Nafarroako Erregional Maila

Aurrera Leitza - Ardoi 0-2

SAILKAPENA

1. Lagun Artea (60p.); 2. Ardoi (57p.); 3. Burlades (52p.);
7. Aurrera Leitza (42p.)

Erregional Ohorezko Maila

Aloña Mendi-Tolosa CF 0-2

SAILKAPENA

1. Zarautz (60 p.); 2. Pasajes (58p.);
3. Aurrera de Ondarroa (55 p.); **4. Tolosa CF (48 p.)**

1. Erregionala Igoera Fasea

Amaroz-Gazteak 2-0

SAILKAPENA

1. Mariño (31p.); 2. Kostkas-Miren Bihotza (30p.); 3. Lengokoak (29p.);
7. Amaroz (11 p.)

Sto. Tomas Lizeoa-Intxurre 4-1

SAILKAPENA

1. Irun (35p.); 2. Sto. Tomas Lizeoa (30 p); 3. Mondragon (24p); **4. Intxurre (20 p.)**

ARETO FUTBOLA

Nazional A Maila

Lauburu KE-Kirol Sport 5-3

SAILKAPENA

1. Zierbana (61p.); 2. Zalatambor Area 99 (57p.); **3. Lauburu KE (55p.)**

Nazional B Maila

Laskorain-Orioko Tabernak 2-1
Transp. Lanunza-C.-Creatch 2-5

SAILKAPENA

1. Alerru Algeposa (57p); **2. Laskorain Ikastola (55p.)**; 3. Concepto-Creatch (53p); **8. Transportes Lanunza (31p.)**

ARRAUNA

Euskadiko Batel Txapelketa

EMAKUMEZKO SENIORRAK

1. Tolosaldea 09:50"
2. Getaria 10:01"
3. Pasai Donibane 10:11"

EMAKUMEZKO JUBENILAK

1. Zumaia 10:06"
2. Orío 10:08"
3. Tolosaldea 10:43"

XI AZKOITIKO DUATLOIA

SAILKAPENA

1. Itsaso Leunda 1:37:42"
2. Gurutze Frades
3. Estibaliz Fernandez

EMAKUMEZKOEN HERRIARTEKO I. TRINDOOR TXAPELKETA

SAILKAPENA

1. Azpeitia 14:12"
2. Markina 14:27"
3. Tolosa 14:58"
4. Azkoitia -

SASKIBALOIA

Bigarren maila, jaitsiera fasea

Bide Bide Ibiza Take 61
Lagunak 53

SAILKAPENA

1. San Ignazio UPNA (9-5); **2. Bide Bide Ibiza (8-6)**; 3. Easo Pastas Arruabarrena (8-6).



Itsaso Leunda Azkoitian irabazle

HERNIALDE Herenegun XI. Azkoitiko Duatloia jokatu zen. Lehenik, korrika 8 km egin zituzten, jarraian 36 km bizikletan eta amaitzeko 4 km lasterka. Emakumezkoetan Itsaso Leunda izan zen onena, Oñatiko eta Barakaldoko duatloietan bezalaxe podiumeko lekuri mirestuena eskuratuz. Gurutze Frades eta Estibaliz Fernandez sailkatu ziren ondoren. **HITZA**



Trindoor Txapelketan hirugarren

TOLOSA Emakumezkoen Herriarte I. Trindoor Txapelketaren lauko finala Azpeitiko irabazi zuen larunbatean. Tolosako taldea hirugarren gelditu zen, 46 segundora. Bigarren postua Markinak lortu zuen. Azkoitia-rrak hirugarren denbora onena egin arren, kideetako bat azkoitiarra ezenez, finaletik at gelditu ziren. Bestalde, Leire Olaberria ikaztegitarra finaleran egon zen, ikusle moduan. **HITZA**

Anoetako Udalak xake ikastaroa antolatuko du

ERREDAKZIOA

Helduentzako 6 eguneko ikastaroa antolatuko du Anoetako Udalak. Hilaren 22tik maiatzaren 27ra, ostegunetan, xakean 1,5 orduz jarduteko aukera egongo da. Izena emateko epea gaur amaituko da eta horretarako udaletxera joan beharko da. 10 euro ordaindu beharko direla ere azaldu dute.

teko aukera egongo da. Izena emateko epea gaur amaituko da eta horretarako udaletxera joan beharko da. 10 euro ordaindu beharko direla ere azaldu dute.

Tolosako Laskorain Ikastolak 2-1 irabazi dio Oriori etxean

ERREDAKZIOA

Duela aste batzuk lidergoa galdu ostean, bolada zail bati egin behar izan dio aurre Laskorainek azkenaldian, baina Aste Santuaren atsedendialdi garai batean Jesukristo berpiztu zuen modu berean berpiztu ditu Alonso eta Javiren mutilak.

Lehenengo zatian 2-0 aurreratu ziren etxeokak Gil TDI-ak eta Landerrek eginiko golei esker, markagailua eta zirrarak aldekoak ziren ordura arte baina kostakoek oraindik ez zuten beraien azken hitza esateko asmorik erakutsi, emaitza horrekin amaitu zen lehengo zatia.

Bigarren erdian gol aukerak oparagoak izan ziren bi atetan. Horitxoek azken minutuetako momentu kritikoa emaitzari eutsi zioten 15 segundoren faltan Oriokoek markagailuaren alde murriztu zuten arte. Hiru puntuak loturik zeuden ordurako. 2-1eko azken emaitzak ondo landutako garaipen baten zapora utzi zuen laskoraindarren.

Emakundek Edurne Pasaban tolosarra zoriondu du

ERREDAKZIOA

Emakumearen Euskal Institutuak Annapurnako gaina lortzeagatik Edurne Pasaban zoriondu zuen atzo. Emakundek jakinarazi zuten: «kirola eta ariketa fisikoak aldatuta sozialaren motor izan daitezke». Horrela, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko baliagarri ikusten ditu Emakundek.

Bestalde, *El Correo*ri eskainitako elkarrizketa batean, Pasabanek Oh Eun-Sunen igoera batzuen inguruan zalantza asko daudela esan omen du.

bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01
(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak: _____

• Lanbidea: _____

• Helbidea: _____

• P.K.: _____

• Posta elektronikoa: _____

• Kontu zenbakia: _____

• N.A.: _____

• Jaioteguna: _____

• Herria: _____

• Tel.: _____

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteko, betetik, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak TOLOSA HERRIA, HEDABIDEAK S.M.-ren fitza telegi automatizatutako bartera pasatuko direla, errepasak dituen eskaintzen berri emateko. Zure esku dago ikusteko, zuzentzeko, ezetzatzeko eta kontra egiteko eskubideak erabiltzeko. Itala eragotzi izateko gero, ditari helbide honez: TOLOSA HERRIA HEDABIDEAK S.M. Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa. edo harpidetza@hitza.info



18°
11°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	19°
HOTZENA	13°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta/Leizor: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Geroz eta gutxiago falta da XI. HITZA Argazki Lehiaketa bukatzeko. Hilak 28 da argazkiak bidaltzeko azken eguna. Animatu eta parte hartu!

Koloretik zuri-beltzera



IBARRA ●
Ibarrako Maria Jesus Iturraldek Palos de la Fronterako lorategi botanikoan ateratako argazkia bidali du. MARIA JESUS ITURRALDE



AMEZKETA ●
Ainitze Labaienek argazki hau bidali du: «Londresen ateratakoa da argazki hau. Bertan London Eye ikus daiteke, Londresen oso ohiko den zeru gris la-gun duela». AINITZ LABAEN



IBARRA ●

Ibarrako Jose Ramonek Huelvako Aracena mendietan ateratako argazkiarekin hartuko du parte HITZA Argazki Lehiaketan. JOSE RAMON



A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak
jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leiztan: Udaletxe bulegoa

agurrak

A Agenda

Hitzaldia

■ **Tolosa.** Amaroizko Beti Gazteak elkartearen bizkarra eta artikulazioen inguruan. Joseba Muñoz medikuaren eskutik, 18:30ean.

Deialdia

■ **Anoeta.** Jaiari begira, txosna batzordearen bilera egingo dute gaur 18:00etan Gaztetxean.

» **GUARDIAKO FARMAZIAK**

■ **Ibarra.** Ugarte M. T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.

■ **Leitza.** Plaza M. T. Elbarren, 36. 112.

hirukide

gaitzak
jarduerak
eskolak

943 670 331
www.hirukide.org

Ate irekiak: apirilak 22, 17:00 - 19:00

Geltoki

fisioterapia zentroa

irekiko dugu
Eider Amondarainek
eta
Naiara Olaetxeak
apirilaren 22an (osteguna)

Batxiller Zaldibia 12 behea
-Tolosako tren geltokian otondo-
Telf.: 943 249 692

IMH ELGOIBAR ingeniaritza imh

Heziketa Zikloak / Txandakako Ingeniaritza

Ate irekiak: APIRILAK 24 (11:00etan)

Imh enpresa: IMH, Arkaia Auzoa 1, Elgoibar. Tfnoa: 943744133 - imh@imh.es - www.imh.es